

Euskara oi euskara !  
Zutan da gorderik  
mendez mende egoki euskaldun gogoa

Euskaldun sortu nintzen, euskaldun hazi  
euskara hutsik amak zidan erakutsi

Euskara maite maite zabiltz enekin beti  
euskara hilez gero ez nuke nahi bizi

Euskara egunez eta euskara gauean  
zahar eta gazteak beti aritu gaitezen

guziek mintza dezagun  
pozez euskara  
bihotzetik erranez euskaldunak gira !

Aupa euskara !  
Aupa Arberoa !  
Aupa euskara Arberoan !

**Hemen dugu KORRIKA ttapa ttipi ttapa,  
plazara heldu eta idekirik tapa,  
mezua har dezagun elgarrekin aupa !  
Euskararen aldera osatuz ekipa !**

